

# noaua

**Patxo Telleria aktorea:**  
"Usurbilen beti egon da  
halako ikusmin bat"

**Euskarazko eskaintza  
oparoa da eskualdeko  
Lanbide Heziketa  
eskoletan**

**Udajolasen izen ematea  
ixtear da**



**Dantzariak ere  
udaberrian loratzen dira**



Zorionak  
amatxo!

URTINEA

*Jantzi kolorez zure etxe,  
balkoi zein lorategia!*

Eta amaren egunean...  
era guztietako aukerak oparitzeko!

San Esteban Auzoa, Usurbil - Tel: 943 36 22 55



**NOAOA**  
BIDAIK

943 373 613

**IRTEERA IRAILEAN**  
Noaoak gidatutako talde bidaiak.  
Lasartetik irtenda.



**ORIANTE**  
Institutua

ESKAERAK

On-line  
2018ko maiatzaren  
2tik 13ra arte

Ikastetxean  
2018ko maiatzaren  
2tik 14ra arte

✔ Zientziak eta  
Teknologia

✔ Giza eta  
Gizarte Zientziak

2018-2019  
IKASTURTEA

Onarpena  
Batxilergoa

✔ Publikoa

info@oriarte.eus | Buenos Aires aldapa, 1 | 20160 LASARTE-ORIA Tel.: 943372852 / 943372277

[www.oriarte.eus](http://www.oriarte.eus)



## Albiste iruditzen

# Kooperatibaren eta Gaztetxearen egoitza ohiaren eraisteak lekua utziko die etxebizitza berriei

Ugartondoko etxebizitza berriak eraiki ahal izateko, egungo eraikinak (Ugarte baserria izan ezik) eraisten hasi ziren aurreko astean. Aste hasieran, garai batean Alkartasuna Kooperatibaren egoitza izandakoa, geroa Usurbilgo Gaztetxearen bilgune ohi, botatzeko lanak abiatu zituzten. Otsailaz geroztik hesitua zuten ingurunea.

Aipatu eraikinon eraisteak lekua utziko die, Ugarte baserriaren bueltan eraikiko dituzten etxebizitza berriei. Tartean, gogoan izan, joan den urtarrilaren 25ean, Usurbilgo Udalak Oiarde Kiroldegian zozketatu zituen babes ofizialeko 46 etxebizitza eta 46 etxebizitza tasatu aurreikusi dira eremu honetan.

### Baserritarrena lehenik, gazteena gero

2011ko udan egun Atallun duten egoitza berria ireki arte, urteak eman zituen Alkartasuna Kooperatibak Ugartondon. Zehazkiago esanda, 2001. urtetik. Ge-



Otsailaz geroztik hesitua zuten ingurunea. Ugartondoko eremu honetan etxebizitzak eraikiko dituzte.

rora hutsik geratu zen eraikina, garai hartako Usurbilgo gazteek hartu zuten 2012ko abuztuan. Hainbat dinamika

bideratu zituzten Usurbilgo gazteek hurrengo urteetan; tailerrak, kontzertu gauak, afari beganoak...

## Laburrean

### Ostiralean elkarretaratzea

Usurbilen Nahi Ditugu bilguneak deituta, 20:00etan Mikel Laboa plazan. Amaieran, Olatz Lasagabaster presoak zoriontzeko argazkia aterako dute.

### Maiatzaren 7an odol ematea

Maiatzaren 7rako deitu du Usurbilgo Odol Emaileen Elkarteak, odola emateko hurrengo hitzordua. Ohiko ordu eta lekuan; 18:00-20:30 artean, anbulatorioan.

### Sagardo Egunari begira

Maiatzaren 20an ospatuko da Sagardo Eguna. "Aurtengo prestaketa lanetan hasi gara. Galanta izango da 37. Usurbilgo Sagardo Eguna!", iragarri dute antolatzaileek.

# noaqua

Kultur Elkarte

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil

943 360 321 ||| elkartea@noaqua.eus ||| www.noaqua.eus

Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

**Elkarteko lehendakaria:**

Idoia Torregarai.

**Aldizkari koordinatzailea:**

Imanol Ubeda.

**Idazkaria:** Aizpea Aizpurua.

**Publizitatea:** Beatriz Alda,

publizitatea@noaqua.eus

**Diseinu berria:** Erroitz S. L.

**Erredakzio kontseilua,**

**erredakzioa@noaqua.eus:**

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

**Banaketa:** Iñaki Irazusta, Jon Galbete.

**Laguntzaileak:** Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbietia, Maddi Galbete,

Ana Urdangarin, Maddi Zaldúa,

Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon

Etxabe, Alazne Begiristain, Denis

Elortza, Pello Aranburu, Xabier

Aranburu, Inma Balda, Luis Ara-

nalde, Nerea Zinkunegi, Maialen

Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta

Udarregi ikastola.

**Tirada:** 2.800 ale.

**Lege-Gordailua:** SS-668-96

**ISSN:** 1136-6818.

**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu

Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



## EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

Euskal presoak



Euskal Herrira!



Luis Aranalde

## Bosturtekoaren balantzea

2013ko martxoaren 13an aukeratu zuten Aita Santu bezala Jorge Mario Bergoglio. “Munduaren muturretik etorritako” Aita Santua zela esan zuen. Frantzisko hautatu zuen izen bezala Asisko San Frantziskoren oroimenez eta omenez. Bost urte pasa dira.

Zalantzarik gabe aurreko Aita Santuekin gauza batzuetan hautsi egin du eta beste batzuetan antzeko jokabidea agertu. Joan XXIII.aren antz handiagoa du Joan Paulo II.arena eta Benedikto XVI.arena baino. Oro har, Kontzilio Vaticano II.aren espiritua berpiztu nahi izan du. Bere aurrekoek “beldurraren hotz gailuan” sartu zuten, Kontzilioa teologo batek esaten duen bezala. Honek berriz, fobiak aldendu eta hats berri bat eman dio.

Frantziskoren aitasantutza mirari bat izan da eta udaberri fruituz betea jada. Ona hemen lorpen nagusienak:

1- Lehen esan bezala, **Kontzilioa suspertzea**, Eliza demokratizatuz, behin betirako estilo inperiala eta monarkikoa baztertuz, laikoei erantzunkide osoa emanez. Horretarako ebanjelioaren mezua hartzen du

ardatz, baztertuz harrokeria eta handikeria klase guztiak.

**2- Errukia ezarri du lege nagusi** bezala. Berak esan zuen Elizak ez zuela izan behar “aduana bat, landetako ospitalea baizik”. Eliza “ugazama” izateko tentazioan erori da askotan, benetako “amaren” rola landu beharrean. Horregatik jarri ditu askotan zama astunak kristauen bizkarretan; beroiek maitatzen saiatu behar zuen zintzoak nahiz bekatariak izan.

**3- Ekologiari** eman dio garrantzi berezia; horren adierazgarri idatzi zuen entziklika “Laudato si”. Hor dioenez, kalte handia egiten ari gara gure lurrari. Askotan pentsatu dugu bere jabe ginela eta bere ondasunak nolahi esplotatzeko eskubidea genuela. Pobreen artean pobreena lurra dugu agian. Ahaztu egiten dugu berak ematen digula hatsa eta bizia.

**4- Erromako kuriaren erreforma:** ez du gehiago ezer jakin nahi botere makina bihurtu zen erakunde horrekin. Bihotz aldaketa sakon bat eskatzen die kuria kideei: ezin dute jarraitu botere aparatu izaten, gizartearen zerbitzari bihurtu

behar dute. Aldaketa hori ezin da gauetik goizera lortu, baina Aita Santua ari da joerak aldatzen.

Lan guzti honen ondorio bezala, erreferente morala bihurtu da munduaren aurrean eta lider gehien maitatua eta jarraitua. Sinesgarritasuna eta itzal handia du ebanjelioko balore nagusien testigu delako.

“Larrosarrikan ez da arantzarik gabe” dio Pablo Soroza-balen kanta hunkigarri batek. Aita Santua lorategi ederra baldin bada ere, kardu batzuk agertu dira tartean. Ez da erraza akatsak aurkitzen bere ibilbidean, nahiz eta berak dioenez badituela eta ez gutxi. Horietako bat izan zen Txileko bidaian egin zuen hankasartzea: Barros Gotzainak tapatu egin ditu Karadima parrokoak egindako abusu sexualak eta Aita Santuak esan zuen Txilen dena gezurra zela eta horrela defendatu egin zuen Barros gotzaina. Gaizki informatu zuten nonbait Aita Santua eta egia jakin duenean ez du zalantza txikienik izan barkamena publikoki eskatzeko gaztetxoei eta beren familiei. Honela esan du: “aitortu behar dut gaztetxo hauen egoera baloratzerakoan hutsegite handiak egin ditudala eta bar-

kazioa eskatzen diet”. Erromara deituko ditu abusatuak izan diren gaztetxoak.

**Emakumearen iraultza da** zintzilik daukan asignatur nagusia. Emakumearen egungo egoera Elizan lotsagarria baita benetan, giza eskubideen kontrako atentatu nabarmena. Bergoglio ez da feminista, “un anciano macho sudamericano” baizik Lucetta Scaraffia kazetariaren esanetan; baina sinpatia handia dio emakumeari eta garbi dauka elizak ireki egin behar duela emakumeengana. Emakumearen rola elizan behar bezala finkatzea izan behar luke bere lehen-tasun pastoral.

Adibidez, emakumeen apaizgintza. Protestanteen artean ez dago inongo arazorik gai horren gainean. Badauki oztopo izugarriak izango dituela hierarkiaren aldetik aldaketa sakonak eragiten hasten bada. Baita kleroan eta eliztarren artean ere se-guru aski.

“Frantziskorekin elizak gogortasuna galdu du eta xamurtasuna eskuratu”, dio Leonardo Boff teologoak. Segi horrela, Frantzisko. Beste bosturteko bat gutxienez oia dizut.

Luis Aranalde | Garazi Lizaso Manterola | Aritz Gorriti | Imanol Ubeda | Maialen Unanue | Idoia Torregarai | Luken Arkarazo



# Andatzen aritzeko boluntario bila dabil Aranzadi elkarteak

U da partean Andatzen egingo dituen indusketa lanetarako behar ditu boluntarioak Aranzadi Zientzia Elkarteak. Lanotan parte hartu edo lagundu nahi duenak maiatzaren 18a baino lehen eman behar du izena (doan) aranzadi.eus atarian. Informazio gehiago web orrialde horretan jaso daiteke.

Andatzen soilik ez, beste hainbat txokoetan ere egingo dituzte lanok. Andatzaren kasuan bideratu asmo duten ikerketa arkeologikoaren helburua, “gure lurraldeko Kalkolito eta Brontze Aroa hobeto ezagutzeara da, Andatza, Belkoain, Garate eta Zarate mendietan kata eta zundaketen bitartez, guztiak Ori ibaiaren inguruan kokatzen direnak.

Orain arte monumentu megalitiko batzuk aurkitu izan dira bertan eta ikerketa honi esker garai eta kronologia desberdinetako zantzu interesga-



Txaldatxurren aritu zirenekoa da ondoko argazkia. Orain, Andatzen egin nahi dituzte indusketa lanak eta Brontze Aroa aztarnak aurkitzeko xedea dute.

## ARANZADIKOEN HELBURUA

**“Ikerketa arkeologiko honen helburua “gure lurraldeko Kalkolito eta Brontze Aroa hobeto ezagutzeara da”**

riak agertzen ari dira, horietako asko historikoak”. Bost lagunentzako lekua egongo da.

## Uztaila-urria bitartean, egun solteetan

Aranzadi elkartetik ohartarazi dutenez, “lanak egun solteetan egingo dira, uztaila-urria bitartean. Indusketa honetan eskualdeko pertsonak izango dute lehentasuna, zundaketa eremutik gertuago baitaude”. Usurbilgo Udala eta Gipuzkoako Foru Aldundia dira Aranzadiren egitasmo honetako laguntzaileak.

## Biodantza ikastaroa

Hitz Aho Udarregi Ikastolako Guraso Elkarteak antolatuta, maiatzaren 7, 16 eta 21erako iragarri dituzte saioak, 17:00-18:30 artean. Apirilaren 27ra arteko epea duzue izen emateko, [hitzaho@udarregi.eus](mailto:hitzaho@udarregi.eus) helbidean. Prezioa: 20 euro. “Saio horietan gure egunerokotasunean, gure gorputzek, sentimenduek eta emozioek zer esaten diguten entzuteko tartetxo bat izango dugu, pertsona bere osotasunean hartuz”.

## Gazte euskaltzaileen topaketa

Euskararen erabileraz hausnartu eta ekintza zehatzak sustatzeko Gazte Euskaltzaileen Topaketa antolatu dute maiatzaren 5erako Donostiako Kontadores Gazte Fabriketan, 09:00-17:30 artean, Izen emateko sartu helbide honetan: [labur.eus/GOovg](http://labur.eus/GOovg)

## Argibide gehiagorako:

688 648 352 /  
[rita@topagunea.eus](mailto:rita@topagunea.eus)

## Ika-mika

# Maiatzaren Lehenari begira

Lan eta bizi duina bermatzea herritar orori. Horixe izan beharko luke herri baten eredu ekonomiko eta sozialaren helburu nagusia, baina, IBEX 35ak eliteen mesedetan agintzen du beti eta kapitalak prekaritate zabaltzen jarraitzen du gure lanean eta bizitzetan.

Bi estatu antidemokratiko ditugu aurrean, Espainia eta Frantzia inboluzio sozial eta politikoa sustatzen ari dira eus-

kal herritarren kaltetan. Lan eta bizi baldintzak prekarizatzen ari dira, zerbitzu publikoak murrizten ari dira, pentsio sistema publikoa eraitsi nahi dute, ...

Erasoaldi honen aurrean indarrak biltzeko garaia da. 1200 euroko gutxieneko soldata, 35 ordutako lan astea, 1080 euro gutxieneko pentsioa, lan istripuak ekiditeko neurriak, prekarizazioaren bazterketa, emakume eta gizonen arteko diskriminazio eta arrakala deu-

sezatzea, ... Lan, bizi eta herri duina nahi ditugulako. Batu gaituzten eta borrokatu dezagun elkarrekin.

Langileekin egon ala patronalarekin lerratu, horixe da egun egin beharreko hautua. Guk garbi dugu. Herri gisa dagozkigun eskubideen alde, langile gisa bestelako jendarteredu baten alde, bidelagun izango gaituzue. Lan, bizi eta herri duina helburu ditugulako, maiatzaren 1ean eta urte osoan,

Kalera eta Borrokara!

Honenbestez, LABek honako deialdietan parte hartzeko gonbita luzatzen dizue.

Deialdiak:

■ Apirilaren 27an ostirala 11:30ean, lan istripuak salatze-ko manifestaldia. Donostiako Bilbao plazatik abiatuta.

■ Maiatzaren 1ean asteartea 12:00etan manifestaldia, Hernaniko gudarien plazatik abiatuta.

**LAB sindikatua**

# Herritarrek hitza hartzeko garaia

**L**egez gauzatzera behar-tua egon eta iragartze-ra ere heldu zen arren, Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan berriari begirako parte hartze prozesurik ez du bideratu Gipuzkoako Foru Aldundiak. Horren aurrean, aurrekaririk ez duen ekimena aurkeztu zuen GuraSOSek, iragan urte amaieran; hainbat eragilerekin batera, urte honetan zehar garatu asmo duten Hitzartu, hondakin kudeaketarekin dugun arazoaren konponbide eta adostasunera hurbilduko gaituen bide-orria lantzeko parte hartze prozesua.

Prozesu honetako gako hitza hartu eta hitzartzea, adostea izango da. "Herritarroi hitza eta elkarrizketa, akordioetara heldzea, ariketa demokratiko hau ukatu zaigu" eta, GuraSOSen lehendakari Joxe Mari Izetak NOAAU!ri gogorarazi dionez.

Gipuzkoarrek hitza hartzea ahalbidetu eta bermatu nahi du Hitzartuk. "Eman ez zaigun hitza geronek hartu nahi dugu, eta ukatu zaigun prozesua geronek egin nahi dugu", dio Izetak. Horretarako dute abian Hitzartu. Batetik, parte hartze prozesu formala, jende talde anitz batekin. "Halere iruditzen zitzaigun oso jende gutxik hartuko zuela parte halako formatuan". Hitza hartu nahi duen herritar orok parte hartu dezan, "Gure bizitzaren kontrola nahi dugu, hondakinekin hasiko gara?", jardunaldi egun berezia antolatu dute maiatzaren 5ean.

Jardunaldi egun honetan



Gipuzkoarrek hitza hartzea ahalbidetu eta bermatu nahi du Hitzartuk.

## JOXE MARI IZETA

**"Landaberi modu solidarioan aukeratu dugu, erraustegitik gertu dagoelako eta erraustegiarekiko kezka azaltzen zuen pankarta bat jartzeagatik izan dituzten zailtasunengatik"**

parte hartzeko "ez da ezagutza berezirik behar, ditugun galderi erantzuteko, talde mailako ezagutza sortzea eta baliatzea da asmoa. Libreki bota daitzkeen proposamenak jasoko dira lehenik (ideien azoketxo), ondoren proposamen horiek, taldetxoetan eztabaidatuko dira, aldi berean. Bakoi-tzak erabakiko du zeinetan parte hartu eta arau bakarra dago: askatasun osoa dago batetik bestera mugitzeko. Besteekiko errespetua ezinbestekoa izango da", antolatzaileen esanetan. Parte hartzera deitzen dituzte, bereziki usurbildar eta lasartearrak.

## Jardunaldia Landaberrin

Ez dute edozein leku hautatu jardunaldi honetarako; Lasarte-Oriako Landaberi Ikastola. Eraikitzen ari zaizkigun erraustegitik hurbilen, 500 metrotara baino ez dagoen ikastetxea dugu. Eta ahotan hartu izan ditugu azken aldian, bi urte daramatzatelako Hezkuntza Delegazioari, erraustegiak hezitzaile nahiz ikasleen osasunean izan dezakeen eraginarekiko kezka agertu eta argibideak eskatzen. Dakizueenez, Hezkuntza Ordezkaritzatik jaso duten erantzun bakarra, ikastetxe atarian zuten pankarta kentzeko agindua izan da. Pankartak hain zuzen, erraustegiak ekar ditzakeen kalteekiko kezka jasotzen zuen.

"Landaberi modu solidarioan aukeratu dugu, erraustegitik gertu dagoelako eta erraustegiarekiko kezka azaltzen zuen pankarta bat jartzeagatik izan dituzten zailtasunengatik", adierazi dio NOAAU!ri GuraSOSeko lehendakari Joxe Mari Izetak.

## Maiatzak 5, larunbata Lasarte-Oriako Landaberi ikastolan:

- 10:15 Harrera.
- 10:30 Irekiera eta agenda osatu.
- 11:45-14:00 Gune irekiko solasaldiak, adin guztietarako.
- 14.00-15.30 Bazkaria. Menua: paella, fruta, edaria. 3 euro.
- 15.30-16:30 Gune irekiko solasaldiak, adin guztietarako.
- 16:30-17:00 Itxiera.
- 17:00 Jaia.

Haurren parte hartzea eta zaintza: etorkizunari buruz iritzia emateko aukera izango dute haurrek. Jarduera bereziak antolatuko dira haientzat egunean zehar, begiraleekin.

■ Izen ematea eta bazkarirako erreserbak: komunikazioa@gurasos.org

■ Beste ekintzak: haurtzaindegi zerbitzua ekintzekin, askariarekin eta musika.

## Informazio gehiago:

hitzartu.eus  
gurasos.org



**EROSKI/city**  
kale Nagusia 10, USURBIL  
943 361182

ARRANDEGIA  
**PELLO**

ORDUTEGI BERRIA:  
ASTELEHENETIK-LARUNBATERA  
9:00-13:30  
ASTEARTE-ASTEAZKEN-OSTEGUNA  
17:00-19:30  
PUNTAPAX 7, 943 54 37 94

**txirriStra**

**TABERNA**



-Plater konbinatuak  
-Ogitartekoak  
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66



## “Prozesu baten abiapuntu kolektiboa izatea nahi genuke”

**A**bian den Hitzartu prozesuaren baitan, maiatzaren 5erako Lasarte-Oriako Landaberri Ikastolan iragarri den jardunaldia “gune irekia” delako metodoaren bidez gauzatuko da. “Talde handien elkarriketarako metodologia oso praktikoa da. Oso jende ezberdinen artean naturalki eta giro lasaian informatu, hitz egin, hausnartu eta eztabaida sortzea bultzatzen du”, adierazi dio NOAUA!ri, gaiotan eza-gutza eta esperientzia izan eta jardunaldi honen antolaketa lanetan buru-belarri murgildua dabilen Jokin Telleria lasarte-oriatarrak.

Herritarrek dira gune irekiok egoki funtzionatu ahal izateko gako eta zutabeak. “Jendeak proposatzen ditu guneotan hitz egiteko gaiak. Elkarriketa guneotan, bere ideiak, arazoak, ezinegonak plazaratzen ditu”, zehaztu du Telleriak. Giro lasaian, elkarri entzunez,



Jokin Telleriak “Gune irekia” izeneko saioa gidatuko du maiatzaren 5eko jardunaldian.

### JOKIN TELLERIA

**Maiatzaren 5eko jardunaldiari begira, usurbildar eta lasartearrei luzatzen diete parte hartzeko gonbita, “baina beste herrietako jendea ere etortzea nahi dugu”**

eta hitz gutxitan, elkar aberas-tuz. Parte hartze saio hauetan, lege bakarra aplikatzen dela dio; bi oinen legea. “Talde batean egon eta talde horrek ez badizu ezer aportatzen, beste batera zoaz. Metodologia oso irekia da, nahi duenak nahi duena egiten du une oro”, gaineratzen du. Gune irekiak enpresek baliatzen dituzte,

baita geroz eta gehiago, eragile ezberdinek antolatzen dituzten bilera, asanblada edota jardunaldietan.

Metodo hau pil-pilean dugun hondakinen kudeaketaren gaia lantzeko baliatzea, oso interesgarria deritzo Telleriak. Urteetan luzatzen ari den gai gatzakatsua izanik, hitz egiteko espazio lasaiak sortzea, “arnas pixka bat hartu eta gaia beste modu batera jorratzeko”.

### Helburua, partehartze eskubidea bermatzea

Gune irekien bidez, jardunaldira bertaratuko diren guztien benetako parte hartze eskubidea bermatzen da, baina era berean, norberak parte hartzeko duen gogo, behar eta neurria errespetatuta. “Interesgarria da profil oso anitzak egotea”, adierazi dio NOAUA!ri Telleriak. Berziki usurbildar eta lasartearrei luzatzen diete jardunaldian parte hartzeko gonbita, “baina beste herrietako jendea ere etortzea nahi dugu”.

## “Norbera bere ideiekin etor dadila”

Esperientzia badu Jokinek “gune irekien” egitasmoe-tan. 2012. urtean sortu zuten Kultura Alternatiboa izeneko plataforma kudeatzen du. Kulturari buruzko elkarriketa, eztabaida eta hausnarke-ta bultzatzeko, Donostiako Doka kafe antzokian, arlo honetan murgilduak dauden hainbat kide eta eragile bildu ostean osatu zuten. Orduko hartan ere gune irekiaren metodologia hau baliatu zuten. Eta handik sortu zen aipatu plataforma. Gerora bideratu dituzten hainbat ekimenen abiapuntua izan zen bilkura hura. “25 topaketa, 3 gune ireki egin ditugu, oso abe-

rasgarria izan da, jendartetik sortu baita”, nabarmendu digu Telleriak.

Hitzartu prozesuaren baitan, kultur jaialdi bat egiteko jarri zen hartuemanetan Telleria GuraSOSekin. Hartueman horretan planteatu zen elkarriketarako gune ireki bat antolatzeko ideia. Antolaketa lanetan murgildu zen Telleria, lasarteoritarra eta Landaberriko ikasle ohia ere badena. “Neuretzat oso ardura potentea da”, adierazi digu.

Kultura Alternatiboa plataformak eginiko bidearen harira, Landaberriko jardunaldia ere, “prozesu baten abiapuntu kolektiboa izate-

tea nahi genuke”. Baina hori bertaratzen diren herritarren esku egongo da. “Ez dakigu hortik zer aterako den. Ia ze jende joaten den, jendeak zer proposatzen duen”.

### Hitzarturako ekarpen baliotsua

Ohiko bilera formatutik urruntzen den saioa dela nabarmenduta, bertaratu nahi duenak zer nolako jarrerarekin hurbiltzea komeni den galdetu diogu Jokini. “Norbera bere ideiekin joan dadila, baina entzuteko prestasunarekin eta ondo pasatzera. Ez da esan nahi dena aurrez prestatua eraman behar.

Lasai, bertan aterako zaizu”.

Halako jardunaldietatik herritarren pentsamenduaren erradiografia marrazten da. “Jendeak dituen benetako ideiak, proposamenak, gogoe-tak, arazo edo ideiak ateratzen dira”. Landaberriko gune irekiak emandakoa txosten batean bilduko da. Hala nahi duenak, jardunaldian parte hartu duen orok jasoko du. Hitzartu prozesuko sustatzaileek, maiatzaren 5ak emandakoa gizarteratu asmo dute gero. Urte amaierara arte abian izango den Hitzartu prozesuari herritarrek eginiko ekarpen praktikoa eta aberasgarria izango da zalantza izpirik gabe.

# Mari Xor ipuin klasikoan sakontzeko aukera

**Y**olanda Arrietak herri ipuinen ezagutza sakona du. Ekainean, Donostiako Udako Ikastaroetan, Mari Xor kontakizun klasikoaren irakurketa gaurkotua egingo du. Ipuinaren egitura, pertsonaien jokabidea, rolak edota harremanak aztertuko dira eta gaurko egunera ekarri. Matrikulazio epea zabalik da.

“Geure herentziatik sorturiko maitagarri-ipuin unibertsala dugu Mari Xor”. Ikastaroaren aurkezpen orrian dator esaldia. Eta lehen esaldiaren ondoan, jardunaldiaren mamia laburbiltzen duen azalpena: “Uste dugu oraindik mami asko gordetzen duela bere barruan, bai andrazko-gizonezkoen zereginenez hausnartzeko orduan, bai gizarte-egituraketaz eztabaidatzeko orduan, bai banakoaren eraikuntza lantzeko orduan, bai gure kulturaren ezaugarriak aztertzeko orduan”.

## Ikastaroaren helburuak

Yolanda Arrietak zuzenduko duen ikastaroak helburu hauek ditu:

■ Euskal kulturako ipuin klasiko bat aztertu, XXI. mendeko gizartera ekarri: Mari Xor



Yolanda Arrietak Donostian eskainiko du ikastaroa. Argazkia: Gaizka Iroz.

## EKAINEAN

**“Ikastaroa Donostian eskainiko du ekainean, baina aldeztatik eman behar da izena”**

maitagarri-ipuina.

■ Ondare ez-materialaren (kantuak, mitoak, ipuinak) baloreetan arakatu: zerk balio digu eta zerk ez?

■ Mari Xor ipuinaren egitura azaleratu eta aletu: akzio nagusiak, pertsonaien jokabidea,

rolak, harremanak, espazioen sinbologia, denboraren trataera. Zerk funtziona dezake gaur, eta zerk ez?

## Irudigile baten laguntzarekin

Praktikotik ere izango du ikastaroak eta, langintza horretan, Yolanda Arrietak Aitziber Alonso ilustratzailea izango du bidelagun. “Maitagarri-ipuin propio bat haurrentzako album ilustratu bilakatzeko pausoak eta estrategiak erakutsiko ditugu adibide erreal baten bitartez eta irudigile baten eskutik”.

## Teorikoa eta praktikoa izango da ikastaroa

### Ekainak 18 astelehena

■ 08:45 - 09:00 Dokumentazio banaketa.

■ 09:00 - 09:15 Ongi etorria eta aurkezpena.

■ 09:15 - 11:15 “Maitagarri propioen baloreak, gaur: zerk balio digu eta zerk ez? Azalpenak eta eztabaida”.

■ 11:15 - 11:45 Geldiunea.

■ 11:45 - 13:30 “Mari Xor ipuinaren barne-egitura: akzio na-

gusiak, pertsonaien jokabideak, irudiak, rolak, harremanak, espazioen sinbologia, denboraren trataera, gaia, sinbologia. Azalpenak eta eztabaida”.

■ 13:30 - 14:00 Sintesia.

### Ekainak 19 asteartea

■ 09:00 - 09:15 Ongietorria.

■ 09:15 - 11:15 “Ahozko ondarea berpizten: album ilustratu baterako gidioa”.

■ 11:15 - 11:45 Geldiunea.

■ 11:45 - 13:45 “Ipuin maitagarri propio bat irudietan: pausoak eta estrategiak”.

■ 13:45 - 14:00 Sintesia.

### Informazio gehiago:

Xehetasun guztiak eta harremanetarako kontaktua, ondoko estekan:

[www.uik.eus/eu/klasikoak-gaur-mari-xor](http://www.uik.eus/eu/klasikoak-gaur-mari-xor)

## Hiru liburu plazaratuko ditu udazkenean

Yolanda Arrietak hiru liburu plazaratuko ditu udazkenean. Bizenta txiki album ilustratua Bizenta Mogel idazlearen ibilbidean oinarrituta dago.

*Klasikoak gaur: Mari Xor* izenburua eramango duen lanak, aldiz, saiakera kutsua izango du.

*Mari Xor* tituluarekin argitaratuko duen lanak, azkenik, album ilustratu baten tankera izango du. Hiru liburuak Denonartean argitartzeak emango ditu argitara.

## Liburuak plazara

Mari Xorren inguruko liburuok plazaratu ondoren, “gazteekin landu nahi nuke ipuinean datozen hainbat gai”, Yolanda Arrietak aditza eman digunez. “Gaur ere pil-pilean dauden zenbait gai heldutako aitzakia direlakoan: rolak, harremanak eta gatza (boterea)”.

Yolanda Arrietak aitortu digunez, “lan bikoitz honen helburua da geure herentziatik, herritik, jasotako maitagarri-ipuin bat gaurko jantziz bueltatzea berriro herriari. Egitura mantenduko dugu baina irudien bidez emango diogu gaurko (eta gure) ukitua”.

Estilo aldetik, Mari Xorren inguruko bi lanak ezberdinak izango dira. Baina elkarren osagarri. “Entseguaren bidez ipuina aletu eta aztertuko dut. Eta album ilustratuaren bidez klasiko bat gaurkotzeko proposamen estetiko bat egin nahi dugu. Horretan ari gara”.

Udazkenak ekarriko ditu hiru lanak. Hori baino lehen, Mari Xorren inguruko lan bikoitzaren berri zehatza emango du ekainean, Donostiako Udako Ikastaroetan.



# Urbil Herri- kirolak

Apirilak 28, 18:00etan.



Argazkiak: Jen Carreras

---

**Inaxio Perurena**  
harrijasotzailea

---

**Aitzol Atutxa**  
**Alatzne Etxaburua**  
**Jokin Alkizalete**  
aizkolariak

---

**Andoni Egaña**  
bertsolaria

---

**Jose Angel Sarasola**  
esataria

---

**Kupelak**  
**Saizar Sagardotegia**

Info. +: [urbil.es](http://urbil.es)



[urbil.es](http://urbil.es)



Benetako **UNEAK**  
**MOMENTOS** que importan

# Orbeldikoekin dantza betean

**O**rbeldi Dantza Taldekoek txundituta utzi gaituzte beste behin ere. Ikusleek gogotik txalotu zuten “Euskal genesisia” ikuskizuna, herriko dantzariak pasa den larunbatean frontoian eskaini zutena.

Usurbilen erreferentzia-lan bilakatu den urteko herri mailako sortze lan handiena dugu duda izpirik gabe. Musika, antzerkia, eta dantza uzartzen ditu emanaldi honek. Eta lanketa prozesu osoak, partaideak, baliabideak... Denak Usurbilgo labela du. Ahalegin nekaezinarena, eta noski, odolean daramaten dantza zaletasunaren labela. Zorionak!



Orbeldi Dantza Taldekoek “Euskal genesisia” ikuskizunarekin borobildu zuten Dantza Eguna. Ama Lurra modu arduratsuan zaintzeko mezua plazaratuz amaitu zuten saioa.



Egunari ekin aurretik, dantza talde guztiak familia argazkia atera zuten udaletxe aurrean. Ondoren, kalejiran ibili ziren herrian.





Euskal genesia-k harrera ederra izan zuten. Arratsalde partean, gaztetxoak eta Ttipikakoak izan ziren protagonistak. Irudi gehiago: [noaua.eus/Argazkitegia](http://noaua.eus/Argazkitegia)



# Euskara, Lanbide Heziketarik Lan

## ESKUALDEKO IKASTETXEETARA JO DUGU, EUSKARAZKO ESKAINTZAREN BERRI JASOTZEKO

**2018-19 ikasturterako aurrematrikulazio epea zabaltzeko hilabete inguru falta den honetan, egunotan hedabideetan bolo-bolo zabaldu da albistea: inguruko enpresek lanbide heziketako ikasleak behar dituzte lanerako. Lanbide Heziketan Buruntzaldean dagoen euskarazko eskaintzaren gaineko publiekurreportaje hau osatzeko lanketa hasia genuenean. “Egia da. Behar handia dago”, adierazi digute Usurbilgo Lanbide Eskolatik.**

Enpresen beharren aurrean, euskarak paper garrantzitsua jokatzeko du. Lantegi askok, euskaraz ikasi duten ikasleak nahi eta behar dituzte. “Enpresa askok ikasle elebidunak eskatzen dizkigute. Kontuan izan, inguruotako enpresen bezero asko eskaldunak dira”, Usurbilgo Lanbide Eskolatik gaineratu digutenez. Nazioartekotze prozesu betean diren lantegiok, “hizkuntzak menderatzen dituzten langileak nahi dituzte. Zenbat eta hizkuntza gehiago menderatu hobeto”. Eta tartean noski, “ikasleak euskara mendera dezala, enpresa askotako eskaera izaten da”. Eskaera badagoela berresten digute Hernaniko ikastetxean eta Andoaingo Leizaran Institutuan ere.

Leizaranen gizarteratzearen inguruko goi mailako heziketa zikloa eskaintzen dute D ereduan. Bada euskarazko langileen eskaria “hezkuntza-laguntzako espezialista izateko, menpekotasunarekin lotutako lanpostu batzuetan ere bai, baina harrera-egoitzetako hezitzaileen laguntzaile izateko lanpostuetan ez. Eta praktikei dagokienez, lan-arloan gertatzen dena islatzen da”.

### Baliabideak euskalduntzen

Egungo lan munduko erronka eta beharrei erantzuteko euskarazko eskaintzaren aldeko apustua egiten da Buruntzaldeko ikastetxeetan. “Lanbide Heziketa beti saiatzen da enpresari erantzuna ematen”, Usurbilgo Lanbide Eskolatik adierazi duteenez. Enpresaren beharrak etenik gabe aldatzen doaz. Horrek noski, lanketa handia eskatzen du, baliabideen ikuspuntutik. Azpimarratzekoa da zentzu honetan, Laneki proiektuak Lanbide



Maiatza amaiera aldera irekiko dute matrikulazio epea Lanbide Heziketan. Argazkia: Usurbilgo Lanbide Eskola.

### ETENGABE ERALDATZEN

**“Lanbide Heziketa beti saiatzen da enpresari erantzuna ematen”. Enpresaren beharrak etenik gabe aldatzen doazenez, “horrek ere eskatzen du gu aldaketa horietan murgiltzea”**

Heziketan ikasmaterial didaktikoak euskaratzen egiten duen ekarpena. “Beti saiatzen gara material berria euskaratzen. Lan handia da”, adierazi digute Usurbilgo Lanbide Eskolatik.

Azpimarratzekoa esaterako, Leizaran Institutuan izan duen eragina. “Gure Gizarteratzeko departamentua aitzindaria izan zen gure zikloko euskarazko materiala Laneki/Jakinbai web orriari argitaratzen”. Gizarteratze zikloa erdaraz ematen hasi ziren 2001-02 ikasturtean, “handik urte gutxi batzuetara, D ereduaz ezarri genuen”.

### Aurretik eginiko ibilbidearen eragina

Eskaintza eta baliabideak badaude euskaraz, euskaraz ikas-

teko eskaera ere badago eta. “Belaunaldi berria geroz eta eskaldunagoa da” eta horrek isla argia du D eredu eskaintzen duten ikastetxeetan. Usurbilgo Lanbide Eskolan esaterako, “geroz eta ikasle gehiagok eskatzen dute euskaraz ikastea”, bereziki noski, Lanbide Heziketara heldu arteko ikasketen ibilbide osoa euskaraz jorratu dutenek.

Mailaren arabera ordea desberdintasunak nabari dituzte, esaterako, Hernaniko Lanbide Heziketan. Goi mailako zikloetan bai, eskari handia dute. Aldiz, Oinarrizko Lanbide Heziketan, gerora erdi mailara igarotzen diren euskaraz ez dakiten ikasle bat baino gehiago dute, “ez dago laguntzarik ikasleok euskaraz ikasi ahal izateko” eta horrek “erdi mailan eragiten du”. Talde mistoa dute mekanizazio ikaskeketan. Alde horretatik garrantzizkoa deritzote Hernaniko Lanbide Heziketako ikastetxetik, erdi eta goi mailako zikloetara heldu aurretik, “ikasleek egiten duten bidea euskalduntzea, Lanbide Heziketara heltzerako euskararen erabilpen handiagoa egon dadin”.

### Andoain

■ Leizaran Institutua  
Goi maila: gizarteratzea.  
leizaran.hezkuntza.net  
943 300 078  
zuzendaritza@leizaran.net  
■ La Salle-Berrozpe  
Goi maila: fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa.  
lasalleberrozpe.eus  
943 590 557  
lsbandoain@lasalleberrozpe.com

### Hernani

Erdi maila: mantentze-lan elektromekanikoa.  
Goi maila: sistema elektroteknikoak eta automatizatuak; fabrikazio mekanikoko diseinua; animazio soziokulturala eta turistikoa.  
hernanilh.hezkuntza.net  
943 551 958  
idazkaritza@hernanilh.eus

### Urnieta

■ Salesiarrak  
urnietakosalesiarrak.com  
943 551 789  
idazkaritza@salesianosurnieta.com

### Usurbil

Erdi maila: administrazio kudeaketa, instalazio elektriko eta automatikoak; mekanizazioa; hozteko eta girotzeko instalazioak; beroa sortzeko instalazioak.  
Goi maila: administrazioa eta finantzak; automatizazioa eta robotika industrialak; energia eraginkortasuna eta eguzkia-energia termikoa; fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa; instalazio termiko eta fluidoaren mantentzeak.  
lhusurbil.eus  
943 364 600  
eskola@lhusurbil.eus

**Informazio gehiago:** ikaslan.net / hetel.org / buruntzaldea.eus

# munduratzeko zubia

## B eredu

D ereduaz gain, bada euskara neurri batean txertatua duen B eredu ere Buruntzaldeko ikastetxeetan. Kasuotan, “moduluen %25a euskaraz bermatua egon behar du”, Urnietako Salesiarren ikastetxetik zehaztu digutenez. Bada ezberdintasun nabarmen bat, ikastetxe publiko eta kontzertatuaren artean. “Kontzertatuak oso mugatuak geratzen gara, euskara ehuneko ehunean bermatzeko”. Andoaingo La Salle-Berrozpetik gaineratu digutenez, “publikoek euskarazko taldeak sortzeko desdobleak dituzte. Ikastetxe kontzertatueta ez dugu halako baliabiderik”.

Eta ondorio argia du horrek. La Salle-Berrozpen aurreko etapetan D ereduaren ikasi duten ikasleak dituzte Lanbide Heziketan. Baina harez gain, badira ikastetxetik kanpotik bertara ikastera datozenak ere, oso profil ezberdinekoak, “batzuk euskara maila ona dute, beste batzuk aldiz, ez”. Testuinguru honetan, “taldeak desdoblatzeko aukerarik ematen ez digutenez, gure erronka, perfil ezberdin horiek talde berdinetan txertatzea da,



Lanbide Heziketako ikasmateriala euskalduntzen dihardu Laneki proiektuak. Bai Euskarari saria jaso zuen 2016an. Argazkia: Bai Euskarari.

horretara behartuak gaude”.

Aurrera begira, euskalduntze bidean urratsak eman nahi dituzte. “Gure erronka pixkanaka Lanbide Heziketa euskalduntzean oinarritzen da, eskualdeko errealitatea errespetatuz”. B ereduaren euskalduntzen ahalegin-tzen dabilzala gaineratu digute, “plangintza egina dugu eta garatzen ari gara”.

Buruntzaldeko Lanbide Heziketako ikastetxeek erronka gehiago ere badituzte. Andoaingo Leitzaranean, “erabiltzen dugun material gehiago euskaratzea da gure helburuetako bat, eta meto-

dologia berri aktibo-kolaborati-boetan sartzen ari garenez, egiten ditugun erronkak euskaraz egitea da gure helburua”.

Etengabe berritu, eguneratzea aipatzen dute Usurbilgo Lanbide Eskolatik, helburu argi batekin; Buruntzaldean euskaraz ikasi nahi duten guztiei erantzun ahal izatea.

## Euskalduntzen segitzeko lanketan

Erreportajearen zehar argi geratu den moduan, bada euskarazko eskaintza Lanbide Heziketan Buruntzaldean. Euskara ikastea

ezinbestekoa da, lan merkatuan ate gehiago zabaltzeko. Baina oraindik bada zer egina Lanbide Heziketa guztiz euskalduna izateko bide horretan. Eta horretan dihardute bai ikastetxeek, baita Buruntzaldeko tokiko erakundeek. Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo Udaletako euskara batzordeek urteak daramatzate, Lanbide Heziketan ere euskara bermatua egon dadin lanean. Tarteetan, ikasmateriala euskaratzen duen Laneki egitasmoa diruz laguntzen. Aurten, 8.000 euro bideratu dituzte proiektu honetara. Aurrematrikulazio kanpaina gerturatzen ari den honetan, urtero moduan, herri-tarrak ikasketok euskaraz egitera animatzen dituzte.

D ereduaren ikasteak, hainbat abantaila eskaintzen baititu. Euskaraz ikasten segitzeko aukera izatearekin batera, bi hizkuntzetan lan egiteko prestakuntza jaso daiteke Buruntzaldean. Eta ikasketak euskaraz eginez gero, erdi mailako zikloetan B-1 eta goi mailako zikloetan B-2 euskara ziurtagarriak eskuratu daitezke azterketarik egin gabe.

2018 / 2019

11 aukera, 11 Lan

**LANBIDE HEZIKETA EUSKARAZ**  
AUKERATU Lanbide Heziketa EUSKARAZ

**BILATU gustukoa duzun zikloa eta HAUTATU EUSKARAZKO EREDUA!**  
Arlo guztietan izango dituzu aukerak:

- ADMINISTRAZIO ETA KUDEAKETA
- ELEKTRIZITATE ETA ELEKTRONIKA
- GIZARTE ETA KULTUR ZERBITZUAK
- FABRIKAZIO MEKANIKOA
- ENERGIA ETA URA
- INSTALAZIO ETA MANTENTZEA
- OSASUNGINTZA
- NEKAZARITZA

Informazio gehiago:  
[www.ikaslan.net](http://www.ikaslan.net) (ikastetxe publikoak)  
[www.hetel.eus](http://www.hetel.eus) (ikastetxe pribatuak)

Buruntzaldean:



# Patxo Telleria: “Azken 50 urteotako euskal musikan oinarritu gara”

**E**z Dok Hiru eszenatiketara itzuli da, “Euskal Herriko imajinario musikalaren errepasso ironiko, absurdu eta dibertigarria eskaintzeko asmoz”. Honakoan baina, Mikel Martinez eta Patxo Telleria aktoreak hiru musikarirekin batera igoko dira oholtza gainera.

**NOAUA! Ikuskizunaren PDFari begira: “Euskal Musikaren benetako istorioa” esaldiak ha zintzilik du. Ia erortzeaz. Ikuskizunak zenbat du historiatik eta zenbat istoriotik?**

**Patxo Telleria.** Historiatik ezer ez! Musikologo ero eta absurduak gara. Normalean, Mikel eta Patxo deitzen diogu elkari. Baina kasu honetan mailaz igo gara eta Martinez doktorea eta Telleria doktorea gara orain. Musikologian eminentzia bi.

Antzezlan hau egiteko, azken 50 urteotako musikan oinarritu gara. Baina planteamendua guztiz azientifikoa eta absurdua da. Dena den, kantatzen ditugun kantak benetakoak dira. Gure kantutegiko 200 bat kanta zati baliatu ditugu. Batzuetan kontestutik ateratu ditugu eta beste batzuetan



Ez Dok Hiru emanaldiko bi aktoreak: Mikel Martinez eta Patxo Telleria. Maiatzaren 5ean Sutegin arituko dira. Emanaldia 20:00etan hasiko da.

## PATXO TELLERIA

**“Euskal musikari eginiko omenaldia da hau. Hori argi dago hasieratik bukaeraraino. Baina katxondeotik abiatu gara”**

ituraldatu egin ditugu, baina umorea sortzeko beti ere.

Gure musikari eginiko omenaldia da hau. Hori argi dago hasieratik bukaeraraino, baina katxondeotik abiatu gara.

## “Kanten indarra”

**N. Antzezlan honen gidoia idazterakoan, hango eta hemengo abestien letrak josi dituzue. Zein neurritan baldintzatu**

**dute abestiek antzezlanaren gidoia?**

**P. T.** Kantek ez dute gidoia baldintzatu. Nik ez nuke hori esango. Kantak baliatu ditugu eszenak sortzeko. Zentzu horretan, abestiek hari bat ezarri didate baina batuta nik eraman dut, ez kantek. Kantak nik nahi nituen tokira eraman ditut, eta ez alderantziz.

**N. 200 kanta baliatu dituzue. Popurri modukoak kantatzen al dituzue?**

**P. T.** Denetarik. Kanta batzuk kontestutik atera eta beste kanta zati batzuekin josi ditugu. Dialogo batean, adibidez, 40 kanta agertzen dira. Askotan izenburua baino ez; edo lelo

ezagun bat. Beste batzuetan popurri modukoak egin ditugu, bai. Eta haur kanten letrekin beldurrezko pieza bat ere osatu dugu.

**N. Zuzeneko musikariek ari zirenean, horrek, bere horretan, bestelako kutsua emango dio antzezlanari ezta?**

**P. T.** Jakina. Hiru musikariak oso iaioak dira eta horrek sekulako pisua ematen dio ikuskizunari. Zinean edo antzerkian gertatzen ez den bezala, antzezlan honekin jendea behin baino gehiagotan etorri da gu ikustera. Eta neurri handi batean, musikariei esker izan da. Obra honekin hori gertatzen ari zaigu. Horrek zerikusirik zuzena du musikarekin. Antzezlan soila balitz, behin istorioa ezagututa ez zenuke berriro ikusteko beharrik sentituko akaso. Baina zuzeneko musikak hori du: entzutea bera gozamina da.

**N. Kantak badu indar hori. Barenak, emozioak mugiarazi ditzake.**

**P. T.** Hori da. Umoreak buruan eragiten du baina musikak emozioak mugiarazteko indarra du.

## “Usurbilen beti egon da halako ikusmin bat”

**NOAUA! Bilbon egin zenuen obra honen estreinaldia. Orain urtebete. Zenbat plaza egin dituzue honez gero?**

**Patxo Telleria.** 60 bat emanaldi egin ditugu. Euskarazko antzerkiaren zirkuituan ez ohikoa da. Gu eta gainontzeko konpainiak ez gaude ohituta horrelako erantzuna jasotzera. Musikala izateak asko laguntzen du, dudarik gabe.

Eskaera handia da baina toki batzuetan ez dugu formatu honekin aritzeko aukerarik. Formatu txikia prestatu berri dugu eta aurrerantzean modu akustikoan ere arituko gara: bi aktoreak, taldeko pianojolearekin batera.

**N. Usurbilen, hala ere, bostak arituko zarete ezta?**

**P. T.** Bai, talde osoa arituko da Sutegin.

**N. Aurreko ikuskizunak ere eskaini izan dituzue Usurbilen. Nolakoa da bertako ikuslea?**

**P. T.** Askotan izan gara Usurbilen. Publiko guztiak ezberdinak dira eta emanaldi bakoitzeko publikoaren erantzuna ere ezberdina da. Jendeak antzerkira joateko joera du eta hori da guk gehien estimatzen duguna. Herrian zaletasuna egotea. Nik gogoan



“Iaztik hona, 60 bat emanaldi egin ditugu”. Arrakasta handia izan duen seinale.

dudanagatik, Usurbilen beti egonda halako ikusmina eta guretzako hori oso ona da.



# Joxan Artzeren inguruko erakusketa, Donostiako San Telmon ikusgai

**I**kimilikiliklik JA Artzeren Unibertsoa erakusketa San Telmo museoan ipini zen lehen aldiz. 2015. urtean izan zen hori eta, geroztik, herri eta hiri ugaritan izan da. Baita Usurbilgo Potxoenean ere. Urte hasieran, Joxan Artze zendu zenean, erakusketa berriro programatu zuela iragarri zuen San Telmo museoak. Maiatzaren 20ra bitarte egongo da museoan bertan ikusgai. Sarra doakoa izango da eta museoaren ordutegian egongo da zabalik.



Maiatzaren 20ra bitarte, San Telmo museoan egongo da erakusketa ikusgai. Aurreko astean zabaldu zuten.

## Aste honetan Donostian omendu dute

San Telmo museoak eta Donostiako Udalak Joxan Artze omendu dute aste honetan,

ikuskizun baten bitartez. Emaldia San Telmon bertan egin zen asteartean (hilak 24). Sarrerak gonbidapen bidez bana-

tu ziren. Apirilaren 19an ipini zituzten sarrerak eskuragarri eta oso denbora gutxian agortu ziren.

# Jexux Artze Kultur Elkartearen eskaintza

## Errementari pelikula

### Maiatzak 4, ostirala

■ 20:00 "Errementari" pelikula Sutegiko auditoriumean.

■ Iraupena: 96 minutu.

■ Sarrerak: 5 euro Lizardin aldeztatik aurretik eta egun berean leihatilatan.

■ Zehaztasunak: Filma Patxi Errementaria euskal ipuinaren moldaketa da. Joxe Migel Barandiaranek bildu zuen istorioa, eta haren gainean idatzi du gidoia Paul Urkijo zuzendaria, Asier Gerrickaetxeberriarekin elkarlanean.

Hamar urte pasatu dira 1833ko lehen Karlalditik. Arabako herririka batean, Diputazioako komisario bat gertakari bat ikertzen ari da, eta arrastoek basoaren sakonean dagoen errementaria beldurgarri batera daramate. Bertan, errementari arriskutsu eta bakarti bat bizi da: Patxi. Inguruko herritarrek hari buruzko istorio

ilunak kontatzen dituzte, lapurreta, hilketa eta demonioekin egindako tratuei buruzkoak. Halako batean, Uxue izeneko neska umezurtz batek Patxi errementariaren etxean sartzea lortuko du, eta zer misterio ezkututzen duen aurkituko du.

Istorioari aurpegia eta ahotsa jartzen dioten aktore nagusiak Kandido Uranga, Uma Braccaglia, Eneko Sagardoy, Ramon Agirre eta Itziar Ituño dira.

## Ez Dok Hiru antzezlan

### Maiatzak 5, larunbata

■ 20:00 "Ez dok hiru" antzezlan Sutegiko auditoriumean.

■ Sarrerak: Lizardin 8 euro aldeztatik aurretik, 10 euro egun berean (leihatilatan).

■ Zehaztasunak: Patxi Telleria eta Mikel Martinez bikoteak beste hiru musikari-aktorekin partekatuko du taula, hitzari, zuzeneko musikaren indarra gehiturik. Zenbat euskal kan-



'Errementari' filma, maiatzaren 4an Sutegin.

ta ezagutzen dituzu, zahar edo berri? Kalkulua egin duzu inoiz? Ziur gaude uste duzuna baino askoz gehiago direla. Ikuskizun honetan berrehun baino gehiago agertzen dira (zatiak, noski!) eta denak ez bada gehienak, ezagun egingo zaizkizu. Gure musika ondarea, altxor bat da, gure memoria historikoaren lekuko emozionala. "Ez dok hiru", kantutegian oinarritutako ikuskizun teatrala da.

## Antolatzailea:

Jexux Artze Kultur Elkarte.

## Maiatzaren 8an eta 9an, ekintzaileentzako ikastaroa

"Zure enpresa nola sortu edo kudeatu" izeneko doako ikastaroa antolatu dute Beterri Buruntzako udalek, tartean Usurbilgoak, Lanbiderekin elkarlanean, maiatzaren 8 eta 9rako Hernaniko Gabriel Zelaia eraikinean. Goiz (09:00-13:00) edo arratsaldetako (15:00-19:00) taldean parte hartzeko aukera egongo da. Ikastaroa, enpresa bat sortu nahi izan edo enpresa bat martxan jarri berri duten pertsona eta ekintzaileei zuzendua dago.

Argibideetarako: 943 304 221 (Nerea Yurrebaso) edo [ekinean@andoain.eus](mailto:ekinean@andoain.eus)

## Matrikulazioa Haur Eskolan

2016an, 2017an eta 2018n jaiotakoei zuzendutako deialdia. Apirilaren 27ra arte zabalik izango da 2018-19 ikasturterako matrikulazio epea Haur Eskolan. Bulego ordutegia, 09:30-12:30 artekoa da. Argibide gehiagorako: 943 374 061 / [haureskola@udaregi.eus](mailto:haureskola@udaregi.eus)

## Ekitaldiak Bihurri Ludotekan

■ Maiatzaren 18an ostirala, Olatz Korta eta Xabi Zubeldiaren musika emanaldia antolatu dute Bihurri ludotekan. 17:30ean hasiko da emaldia.

■ Maiatzaren 30ean astelehena, gurasoei zuzenduriko hitzaldia: "Identitatearen ibilbidea. Neska-mutil anitzak, sexualitateak, transexualitatea". 17:00etan, Bihurri ludotekan. Solasaldia Usurbilgo Sexu Aholkularitza Guneak eskainiko du.

# BAZKIDEEN TXOKOA



**Maiatzak 5  
larunbata,  
20.00tan Sutegin**

*"EZ DOK HIRU"  
antzezlan*

**noaua! euskararen aterpe**

NOAUA!ko bazkideen artean bi sarrera zozketatuko ditugu maiatzaren 2an

Bazkide egiten bazara, opari eder bat jasoko duzu eta zozketa hauetan parte hartzeko aukera. 943 360 321 / elkarte@noaua.eus

# BAZKIDEEN TXOKOA



**Maiatzak 4  
ostirala,  
20.00tan Sutegin**

*"ERREMENTARI"  
pelikula*

**noaua! euskararen aterpe**

NOAUA!ko bazkideen artean bi sarrera zozketatuko ditugu maiatzaren 2an

Bazkide egiten bazara, opari eder bat jasoko duzu eta zozketa hauetan parte hartzeko aukera. 943 360 321 / elkarte@noaua.eus



# Guztion osasuna bermatzeko, erraustegia geratzea eskatu dute

**A**nbulatorio atarian, eta errausketaren zero gunerantz begira mobilizatu ziren apirilaren 18an hainbat usurbildar. Modu horretan, Errausketaren Aurkako Mugimenduak "Osasuna bermatu" aldarripean Gipuzkoako osasun etxeetan deituak zituen elkarretaratzeekin bat egin zuen herri honek ere. Eta horixe hain zuzen, herritarren osasuna bermatu ahal izateko Zubietako erraustegiko lanak berehala etetea eskatu zuten.

Usurbilen bezala, Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Pasai Antxo, Oiartzun, Donostia, Legazpia, Zarautz, Zumaia, Bergara, Arrasate, Legazpi, Irura edota Villabonako anbulatorio atarietan ere elkarretaratzeak egin zituzten errausketaren aurka, eta Gipuzkoan martxan diren alternatiba merkeago eta osasuntsuagoak ezartzea eskatzeko.

"650 pertsona baino gehiago batu ziren anbulategi aurreetan osasunaren alde. Azken asteetako albiste kezkarriek bultzatu dute mobilizazio hau, batez ere CSICeko ikerlari esanguratsuek Zubietako erraustegiaren ingurumen baimena aztertu eta ikusi ostean, 12 toxiko isurtzea baimendua izango dela inongo kontrol eta mugarik gabe. Oso larria da hau", ohartarazi dute Errausketaren Aurkako Mugimendutik.



Zubietako erraustegiko lanak berehala etetea eskatu zuten apirilaren 18an.

## ERRAUSKETAREN AURKA

**Usurbilen bezala, Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Pasai Antxo, Oiartzun, Donostia, Legazpia, Zarautz, Zumaia, Bergara, Arrasate, Legazpi, Irura edota Villabonako anbulatorio atarietan ere elkarretaratzeak egin zituzten**

## Kasu larriak nazioartean

Nazioartean ere alarma piztu duten hainbat kasu daudela nabarmentzen dute. "Marseilan erraustegiaren inguruko elikagaietan dioxinak topatu dituzte. Montpelierretik ere azaldu ziguten nola erraustegi modernoek ere 2.000 sustantzia isurtzen dituztela, zeintzuk soilik 50 neurtzen diren.

Txosten batek baieztatu zuen inguruko gaixotasun larriak horrekin lotura zutela. Pisan (Italia) ere antzeko txosten eta emaitzak, gaixotasun eta heriotzak. Azken honetan erraustegia ixtea erabaki dute. Ezin dugu ahaztu Madrileko Valdeingomez inguruko bizilagunen testigantzak, denak norabide berdinean; usai txarrak, minbiziak eta heriotzak".

## Erraustegiaren ondoan bizitzearen arriskuak, agerian

Panorama honetan, historikotzat jotzen du Errausketaren Aurkako Mugimenduak, berriki Parisko auzitegiak emandako epaia. "Arrazoia eman die Vaux-le-Penileko erraustegiak kaltetutako 165 herritarrei eta zigor gogorak ezarri dizkio kutsaduraren ardura eduki zuen Meluneko mankomunitari. Izan ere baimendutakoa

baino 1.700 aldiz dioxina gehiago isurtzen zuela aurkitu zuten 1998an egindako ikerketan. 2002an egindako ikerketan dioxinak legez ezarritakoa baino 2.200 aldiz gehiago eta kutsatzaile organiko oso toxikoak antzeman zituzten".

Azkenaldi luzean argitara eman diren hainbat albisterekiko kezka agertzen du Errausketaren Aurkako Mugimenduak: Anbereseko erraustegiaren leherketa, AEB-tan, Mexikon, Japonen edo Sardinian kiskalitako erraustegiak, Zabalgarbiko "Q" sukarraren isuria... "Hauek denek erraustegiaren ondoan bizitzearen arriskuak agerian utzi zituzten".

## Ainhoa Intxaurrendieta eta Iñaki Errazkinen aldeko mozioa

2013. urtean Zubietako erraustegiko lanak geratzeagatik apirilaren 12an Madrilen epaitu zituzten Ainhoa Intxaurrendieta eta Iñaki Errazkin. Haien absoluzioa galdegiten duen mozioa aurkeztekoa zen EHBildu, astearte honetarako deitua zegoen udalbatzaren osoko bilkuran. Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioko lehendakari eta foru ingurumen diputatu ohien absoluzioa galdegiten zuen mozio honekin jazotakoaren berri zehatzago, hurrengo astekarian emango dizuegu.

**www.noaua.eus**  
USURBILGO ATARIA

**URDAINTZI S.L.**  
Eraikuntzak  
649 43 54 75  
943 36 72 64  
IT-ak egiten dira  
**ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK**

Josue  
Igeltseritza  
606 37 21 05  
Atallu pol.28 USURBIL

**Uraltz, s.l.**  
Igeltseritza  
Orokorra  
693 059 392  
uraltz@uraltz.com USURBIL



# Udajolasen izen emateko azken egunak

**M**aiatzaren 3ra arte zabalik segiko du, uztailaren 3tik 27ra Usurbilen errolatutako 4-12 urte arteko (HH3-LH6) haur eta gaztetxoek zuzenduta antolatu ditugun udalekuetarako izen emateak. Bi egunotan izan ezik: apirilaren 30ean eta maiatzaren 1ean. Gogoan izan, zuen inskripzioak bideratzeko kontuan izan beharreko xehetasunok:

- Izen ematea: maiatzaren 3ra arte NOAUA!ren egoitzan. Astelehenetik ostiralera, 10:00-11:00 eta 16:00-18:00 artean (apirilaren 30ean eta maiatzaren 1ean izan ezik).
- Kuota: 83 euro. Familia ugariak 67 euro (Familia Ugarien Txartela edo Familia Liburuaren kopia ekarri).
- Ordainketak egiteko kontu zenbakia: Laboral Kutxa: 3035 0140 34 1400025811 (ordainketa egiterakoan, haurren izen abizenak adierazi).



Izena ematen duten umeek jarduera ezberdinetan hartzen dute parte.

## UDAJOLAS

**“Uztailaren 3tik 27ra  
iraungo du Udajolasek  
eta 4-12 urte arteko  
gaztetxoek zuzendua  
dago”**

- NOAUA!ren egoitzan (Bordaberri kalea 3) aurkeztu beharreko dokumentazioa: izen emate orria beteta, ordainketa-agiria eta gizarte segurantzako txartelaren kopia. NOAUA!-n ber-

tan, Udajolas antolatu den egunetan umearen bila nor joango den zehazten duen orri bat ere bete beharko da.

- Plaza kopurua: 200.
- Oharrak: behin izena eman ondoren ez da dirurik itzuliko. Guraso bilera, ekainaren 14an 17:00etan Sutegiko auditorioan.
- Argibide gehiago: NOAUA!ren egoitzan edo 943 360 321.
- Antolatzaileak: NOAUA! K.E. eta Usurbilgo Udala.

# UEMA-k ere udalekuak antolatu ditu

Usurbilgo herria kide duen Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak (UEMA) ere udalekuak antolatu ditu udalerrri euskaldunetako 15-18 urte arteko gazteentzat. Uztailean, astebetez, Zestoako Sastarrain aterpetxean egonaldia hain zuzen.

“Euskarak eta gozamenak baturko gaitu aste oso batez ingurune eder bezain lasaian. Zazpi eguneko egonaldia, mantenu osoan, ekintza, irteera, tailer eta udalekuetan ohikoak diren eguneroko jarduera ugariarekin”.

## Argibideak:

- Noiz: uztailaren 10etik 17ra.
- Non: Zestoako Sastarrain aterpetxean.
- Nori zuzendua: udalerrri euskaldunetako 15-18 urte arteko gazteentzat.
- Plaza kopurua: 50. Salto Gazte Topaketetan parte hartu zuten gazteentzat 10 leku gordeko dira. Gainerako 40 gazteak zozketa bidez hautatuko dituzte, “beti ere lurraldetasun eta genero ikuspegiak zainduta”. Zozketa egin behar izanez gero, maiatzaren 14an jakinaraz-

ziko zaie gazteei lekua egokitu zaien edo ez. Zozketaren berri izanda, ordainketak egiteko maiatzaren 19ra arteko epea izango da.

- Izen ematea: maiatzaren 9ra arte.
- Prezioa: 249 euro.
- Informazio gehiago: hezkuntza@uema.eus 943 816 699 (astelehenetik ostiralera, 8:00-15:00 artean) uema.eus
- Antolatzailea: UEMA.
- Laguntzailea: Eusko Jaurlaritza.

## Udako txokoak

### Zubietan

2-12 urte artekoentzako udako txokoak antolatu ditu Zubietako Guraso Elkarteak. Interesdunek idatzi dezatela zubietatxoko@gmail.com helbidera edo deitu 649 659 786 telefono zenbakira.

## Ingeles udalekuak, bertan behera

Udarregi Ikastolatik ohartarazi dutenez, bertan behera geratu dira uda parterako antolatuak zituzten ingeles udalekuak, izen emate nahikorik ez baita egon.

## Emakumeen

### ahalduntze eskola

Emakumeentzako oinarrizko elektrizitate tailerra antolatu du Usurbilgo Udaleko Parekidetasun Sailak Usurbilgo Lanbide Eskolarekin elkarlanean, maiatzaren 2tik 30era. Saioak asteazkenero izango dira Lanbide Eskolan, 17:00-20:00 artean. Doako ikastorako izena aurrez eman beharko da, parekidetasuna@usurbil.eus helbidera idatzita edo 943 377 110 telefono zenbakira deituta.

## KzGunea maiatzean

Apirilaren 27ra arte goizez zabalduko dute KzGunea, 09:00-13:00 artean. Apirilaren 30ean eta maiatzaren 1ean itxita egongo da. Hilaren 2tik aurrera aldiz, arratsaldez irekiko dute, 16:00-20:00 artean. Hemen KzGunea datozen ikastaroen berri:

-Apirilak 26-27, 09:00-11:00 “Bapateko mezularitza zure Smartphone bidez”.

-Maiatzak 2-11, 16:00-18:00 “Argazki ukitua GIMP erabiliz”.

-Maiatzak 14-25, 16:00-18:00 “Ofimatika tresnak”.

Informazio gehiago:

Kale Nagusia, 37

943023 684

tutor.usurbil@kzgunea.net

## Kadete mutilak, Euskadiko Txapelketan

Euskadiko Txapelketa jokatzeko sailkatuak daude Usurbil Kirol Elkarteko kadete mutilen eskubaloitako taldeko kideak. As-teburu honetan ospatuko da txapelketa, Zarautzen.

“Gerturatu Aritzbataldera taldea animatzera!”, luzatu dute gonbita Usurbil K.E.-tik. Eskubaloitako elkartetik iragarri

dituzte bestalde, “larunbat eta igande goizean, Gipuzkoako infantil mutilen amaiera fasea jokatuko da!”.

### Partidak

Honatx Zarauzko txapelketan usurbildarrek jokatuko dituzten partiden ordutegiak:

### Apirilak 27 ostirala, 17:30

Zaisa Bidasoa Irun-Usurbil K.E.



Kadete taldeak Euskadiko Txapelketa jokatuko du eta infantilek Gipuzkoako amaiera fasea.

### Apirilak 28 larunbata, 15:30

Urduliz Askartza Eskubaloia-Usurbil K.E.

### Apirilak 29 igandea, 12:30

Usurbil K.E.-Gran Camping Zarautz KE

## Andatzakoekin batera Herri Urratsera joateko aukera

### Bi eguneko irteera (maiatzak 12-13):

■ 8:30ean abiatuko dira autobusez Oiarde Kiroldegitik.

■ Ibilbidea: maiatzaren 12an Ereñozu-Lesaka (6,5 ordu), maiatzaren 13an Lesaka-Senpere (5,5 ordu).

■ Aterpea: Lesakako Matxinbeltzanean dutxa, loa eta gosaria. Afaria aparte ordainduko da. Aterperako toaila norberak eraman beharko du.

■ Prezioa: 30 euro.

### Egun bateko irteera (maiatzak 13):

■ Ibilbidea: Lizuniaga-Senpere (3,5 ordu).

■ Abiatzeko hitzordua: 8:30ean autobusez Oiarde Kiroldegitik Lizuniagaraino (nahi duena Senpereko Herri Urrats jaialdiraino autobusez joan daiteke. Kasu honetan, ez da zertan federatua egonik).

■ Prezioa: 10 euro.

■ Izen ematea: ordainketak maiatzaren 9a baino lehen egin, bi kontu zenbakiotako batean: Rural Kutxa: 30080259163005430321. Kutxabank: 20955069071068489805.

### Oharrak:

-Plaza kopuru mugatua.

-Bi eguneko irteerako parte hartzaileen kasuan, 2 egunerako ibilbiderako otordua, toaila eta aldatzeko arropa eraman beharko da.

-Maiatzaren 13an Lizuniagan elkartzeko dira autobusez datozenekin, Senpereko Herri Urrats jaialdira joateko. Senperetik itzultzeko autobusa, 18:30ean.

-Andatza M.K.T.-k antolaturiko irteeretan parte hartzeko ezinbestekoa da mendiko federatua izatea eta aseguru txartela indarrean izatea.

### Informazio gehiago:

andatzamendizale.info

## Emakumeen Paleta Gomazko Txapelketa

Usurbilgo Pilota Elkartek Emakumeen Paleta Gomazko Txapelketa antolatu du. Izena emateko epea apirilaren 27an amaituko da.

Txapelketa honetan edozein emakumek eman dezake izena eta bikoteka jokatuko da gomazko pilotarekin. Partidak maiatzean hasiko dira eta finalak, berri, Santixabeletan jokatuko dira.

Izen emateko azken eguna apirilaren 27a ostirala izango da. Izena emateko 676453176 telefono zenbakira deitu behar da edo pagazpe@gmail.com helbidera idatzi.

### Gizonezkoan, epea itxi da

Gizonezkoen txapelketa ere egingo da. Kasu honetan, apirilaren 20an amaitu zen izena emateko epea.

## Eskubaloitako partidak Oiarde kiroldegian

### Apirilak 28 larunbata

■ 16:00 Kadete mutilak, Territoriala:

Usurbil K.E.-Legazpi

■ 18:00 Senior mutilak,

1. Nazionala:

Usurbil K.E.-Romo

## Pilota partidak

### Apirilak 28 larunbata

Eskuz banaka lau terdian

Jubenilak 1. Maila

Pagazpe (Manex Albeniz)

Tolosa Aurrera

Eskuz banaka lau terdian

Jubenilak 1. Maila

Pagazpe (Aimar Iruretagoiena)

Gazteleku

## Usurbilgo Pilota

### Txapelketa, martxan

Larunbat honetan hasiko da Usurbilgo 46. Pilota Txapelketa. Euskal Herritik etorritako 33 bikote arituko dira lehian. “Partidak astebururo izango ditugu eta Santixabele egunean finalak ikusteko aukera bikaina izango dugu”, antolatzaileek adierazten dute.

### Apirilak 28 larunbata, 11:00

Mozo-Zabala (Alegia)

Alberdi-Elizegi (Andoain)

Lertxundi-Aranalde (Orio)

Etxegarai-Mendy (Iparralde)

Urkizu-Labaka (Hernani)

Nazabal-Arbizu (Irurtzun)

### Apirilak 29 igandea, 11:00

Barbajero-Mina (Paz De Ziganda)

Barandiaran-Etxeberria (Oiartzun)

Etxezarreta-Arrate (Andoain)

Bergara-Otermin (Bergara)

**JUANTXO**  
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8  
☎ 943 370 008

**Otar-Goxo**  
Elkargaiak

Zubiaurrenea, nº2  
☎ 943 36 55 81  
20170 Usurbil

*Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!*

**USURBILGO HORTZ KLINIKA**

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER  
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia 10, 1.C4  
Tlf 943 37 08 78

20170  
RPS: 28/17  
USURBIL



## ETXEBIZITZA

## Salgai

Etxebizitza egin daitekeen 61 metro<sup>2</sup> lokala salgai Munalurran. Etxea bihurtzeko baldintzak betetzen ditu. Prezioa: 68.000 euro. 943 916 182 (Jon).

Etxea salgai Atxegalden. 4 logela, sukalde-egongela eta 2 komun. Dena berritzeko. 659 921 235

90 m<sup>2</sup> pisua salgai Txaramunto kalean. 3 logela, sukaldea, 2 komun, egongela. 11 m<sup>2</sup> terraza, 8 m<sup>2</sup> trastelekua eta bertan 33 m<sup>2</sup>-ko garajea erosteko aukera. 606 877 856

Atikoa salgai garajea eta trastelekuarekin. Tel. 665 720 913

Pisu bat salgai Kale Nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. Dena kanpoaldera. Ganbara prezio barruan. Prezioa: 205.000 euro. Tel. 629 631 838

Pisua eta garajea salgai kale nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela, komuna, kalefakzioa. Dena berrituta. Fatxada ere bai. Garajea 40 m<sup>2</sup> eta itxia. Biak batera edo aparte. Tel. 695 705 905.

Pisu bat salgai. 90 m<sup>2</sup>. 3 logela handiak, 2 bainugela, jan-egongela, sukaldea, jantokia aparte eta trastelekua. Dena kanpoaldera. 605 707 642. Prezio berria.

Gure Borda salgai: 5.600 m<sup>2</sup>, borda, aterpea 943 42 96 82 / 637 293 471

90 m<sup>2</sup> pisua Kale Nagusian. 4 logela, 2 komun, saloia, sukalde handia, trastelekua. 657700408

Duplexa Kalezarren - Aizparrenea etxea, 176 m<sup>2</sup> (120 + 56). Garajea eta terraza. Igogailua eta fatxada berrituta. 359.000 euro. 679002101.

Kalezar auzoa, 3 gela handi, sukalde handia, komun bat. Gela guztiak kanpoaldera. Fatxada berrituta, teilatua egoera onean. Garajea, bi trasteleku. 135 m<sup>2</sup>. 637 22 88 60

## OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / [erredakzioa@noaua.eus](mailto:erredakzioa@noaua.eus)

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berriena. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

2 gela, komuna, sukaldea eta sala dituen etxe bat erosiko nuke. Gehienez 90.000 euro. 689 58 39 21.

Bi gelako etxebizitza salgai. Komuna, hall, sukaldea. 3. pisua igogailuarekin Muna Lurra kalean. 175.000 euro (620826891).

Etxe txiki eta merke bat erosi nahi nuke. Edo alokairu baxuko bat hartuko nuke. 615 758 476.

## Alokairuan

Abendurako pisua alokairuan hartu nahi dut, Aginagan, Usurbilen edo Orion. 690 367 952

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel. 620 708 265 / 686 143 786.

Logela bat alokatuko nuke. Mutil langilea, serioa eta arduratsua. 651 197 381 / 632 138 393

Alokatzeko pisu merke baten bila gabiltza, bikote bat gara, biak lanarekin, informea ditugu. 675595294

Duplex bat alokatzen da Txaramunto kalean. 3 logela, 2 komun, sukaldea, egongela, bulego bat, terraza bat eta garajea. 625 702 807.

Santuenean pisu bat alokatzen da. 679 366 415.

Logela bat alokatuko nuke. Neska bat naiz eta lanean ari naiz. Arduratsua eta garbia. 612 487 017.

Negoio-letal bat alokatzen da. Kafetegi edo taberna gisara

nahiago, baina aukerak zabalik. Kaxkoan kokatua. 630 456 404

3 getetako etxea alokairuan; 600 euro gehienez. 665319105.

Alokairuko pisu baten bila nabil. 3 logela eta igogailua. Familia arduratsua eta nominarekin. Epe luzerako. Tel. 687 201 410.

Logela alokairuan Aginagan, pertsona arduratsua batentzat. Tel. 672 448 644.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Txakur bat dut. Erroldatua. 661 115 222

Alokairuko pisu txiki baten bila nabil. Presa dauka. 699 680 265.

3 logela dituen alokairuko pisu baten bila nabil, baina epe motz batean (urte 1) erosteko aukerarekin. Tel. 686 554 145. Ana.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. Tel. 603 336 046.

## MOTORRA

## Salmenta,

## garajeak

Alokairuan 50m<sup>2</sup>-ko lokal/garaje bat Atxegalden. Autoak sartzeko atearekin. Goiko kalea 2. 676453176

Baju bat alokatzen da Munalurra, 4ean. Tel. 652 765 583

Garajea salgai Txaramunto kalean. 23 m<sup>2</sup>, ate elektrikoa eta itxia. 615744628.

34m<sup>2</sup>ko lokal komertzial bat

alokatzen da Errekabixi 5ean. 695723192

2 garaje marra alokairuan edo salgai, Olarriondo 4an. Banaka edo biak batera. Tel. 663 031 803

120 metro<sup>2</sup> lokal bat salgai. Alperroburu 3an. 699 306 158

Ganbara, atiko edo trasteleku bat erosiko nuke Usurbil edo inguruan. 630 490 844.

Kotxe bat salgai, 3 hilabete bakarrik ibilia. Oso kilometro gutxi. Renault Clio marka, gris argia eta 5 ate. 943 370 677

Garaje marra bat salgai Munalurran. Tel. 646 663 405

Daelin Message motorra salgai, 49 zilindr. 6.400 km, 15 urte inguru. Istripurik gabe. 450 euro, negozio-garriak. Tel. 637 760 816.

Garaje itxia salgai, 38 m karra-tukoa, Txaramunto, 12. Usurbilen. Mikel 665677195

Garaje itxia salgai, 38 m<sup>2</sup>, Txaramunto kalea 12. Mikel: 665677195

## LANPOSTUAK

## Lan eskaintzak

Zubietan etxeko lanak egiteko emakume bat beharko nuke. Lan-egun erdian. 695 783 202

Zerbitzari bat behar dugu aste-burutarako Artzabal jatetxean eta udaran ordu gehiago. Tarte-ka asteburuak jai egiteko aukerarekin. Garrantzitsua euskara jakitea eta esperientzia izatea. [artzabaljatetxea@gmail.com](mailto:artzabaljatetxea@gmail.com)

Zerbitzari lanak egiteko, neska edo emakume euskaldun bat behar da. Tel. 690 106 070

Aseguru sektorean espezializatua den gestore pertsonal baten bila gabiltza. Heziketa aseguru-etxearen esku eta libre egotea eskatzen da. Diru-sarrera altuak. [\[cidente.com\]\(http://cidente.com\). 699 760 873.](mailto:jm.fandino@catalanaoc-</a></p>
</div>
<div data-bbox=)

## LANPOSTUAK

## Lan eskaerak

Pertsona helduak zainduko nituzke, asteburu, jai egunetan eta gauean, baita erietxean ere. 606 661 048 / 943 404 015.

Lan bila nabil etxeak garbitzen edo umeak zaintzen, ekaina eta uztailla, goizetan eta Usurbilen. 608201745.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Interna, externa edo orduka. 632 541 872

Emakume bat naiz, eta lan bila nabil. Interna, externa, orduka. Helduak edo umeak zaintzen. 676 188 411

Neska bat naiz, eta lan bila nabil. Orduka lan egingo nuke. Helduak edo umeak zaintzen. 619 355 819

Mutil gazte bat naiz, eta lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen, hospitalean, baserrian. 632090146

Mutil gazte bat naiz, eta lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen, hospitalean, baserrian. 632793747

Lan bila nabil. Umeak edo pertsona helduak zaintzen. Esperientzia eta erreferentziak. 662 910 181

Interna bezala lan egingo nuke. Esperientziarekin. Paperak eguneratuta. Tel. 682 723 520

Emakume bat eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko. Geriatriako eta lehen laguntzako ezagutzak ditut. Esperientzia etxeko lanetan eta antolamenduan. Erreferentziak ditut. 612 495 429

Emakume bat eskaintzen da, etxeko lanak egiteko edo umeak zaintzeko. Goizez edo arratsaldez. Esperientzia daukat. 690 336 444.

Lan bila nabil. Orduka eta arratsaldez. 663 776 93

Lan bila nabil. Pertsona helduak



Zorionak Arantxa eta Imanol!



## Zorionak Ani!

Badator zure urtebetetze eguna!! Mila muxu eta ondo-ondo ospatu!!



## Zorionak Danel!

Apirilaren 25ean 3 urtetxo beteko dituzu! Muxu asko etxekoan partez.

## Heriotzak

Maria Gonzalez Alonso  
Apirilaren 23an hil zen, 89 urterekin



**OHARRA:** 2018ko maiatzaren 4an aterako dugu datorren astekaria. Oharrak, zorion-agurrak, bestelako deialdiak...

jakinarazteko azken eguna: apirilaren 30ean astelehena, eguerdiko 11:00etan. Emailaz, helbide honetara igorri: [erredakzioa@noaua.eus](mailto:erredakzioa@noaua.eus)

zaintzen, gauetan, asteburutan, externa bezela edo garbiketa lanetan. 671 763 558.

Interna moduan lan egin nahi dut adinekoak zaintzen. 25 urteko lan esperientzia dut. 633 73 64 26

Lan bila nabil, etxeak garbitzen, etxeko lanak egiten edo pertsona helduak zaintzen. Esperientzia ere erreferentziekin. Tel. 632 576 258

Mutil arduratsua baserriko lanetarako eskaintzen da. 661118892.

18 urteko neska euskaldun herritar esperientziaduna naiz. Aste osoan zehar arratsalden umeak zainduko nituzke. 688817429.

Lan bila nabil. Umeak zaintzen, garbiketa lanak egiten, orduka, interna bezala. Tel. 642 238 949

Lan bila nabil. Etxeak garbitzen, arratsaldetan 2 ordu edo asteburutan. Tel. 663 776 223.

Usurbilgo bizilagun bat naiz, eta orduka garbiketak egiten lan egingo nuke. Tel. 674 570 534

Lan bila nabil. Etxeak garbitzen, arratsaldetan 2 ordu edo asteburutan. 663 776 223. Maribel

Lan bila nabil edo gabilta. Pertsona helduak zaintzen edo garbiketa lanak egiten; bulegoak, garajeak, portalak, poligonoak, edo enpresak. Sukaldean ere moldatzen naiz. Kotxea dut, eta esperientzia. 688 654 698.

Lan bila interna, esterna moduan, haur nahiz helduen zaintzan aritzeko. Esperientziaduna. 677 624 971.

Lan bila nabil. Interna, externa, aste burutan, gauak pasatzen... lan egingo nuke. Paperak eguneratuta eta esperientziarekin. 645 067 560

Emakumea eskaintzen da heldu nahiz haurrak zaintzeko. Interna edo esterna moduan. 697 221 372.

Emakumea lan bila haur, helduen zaintzan, etxeko lanak egiteko interna edo esterna moduan. Espe-

rirentziaduna. 617 998 582.

Garbiketa lanak, helduen zaintza lanak egiteko prest interna moduan, egunez edo orduka. 671 763 558

Mutil gazte bat naiz eta lan egingo nuke. Baserrian, animaliak zaintzen, pertsona helduak zaintzen, harraskan, arraina garbitzen... 688 802 851

Lan bila nabil. Interna, externa, orduka edo gauetan. Garbiketa lanak egiten, pertsona helduak zaintzen... 634 278 198

Neska ikasle eta gaztea eskaintzen da oporretan umeak zaintzeko. Tel. 632 504 672

Neska gazte euskalduna, kla-

se partikularrak emateko prest egongo litzateke: euskeran, gaztelan, ingelesean eta frantsesean goi maila eta tituluduna. 687025768 (Jaione).

Lan bila nabil. Orduka, gauetan... Pertsona helduak zaintzen edo garbiketetan. Tel. 671 763 558

Lan bila nabil. Interna bezala, orduka... edozein modutan. Tel. 638 877 627

Lan bila nabil. Interna bezela edo orduka eta astelehenetik ostiralera. 690 146 067

Lan bila nabil. Interna bezela, orduka, gauetan... edozein modutan. Pertsona helduak zaintzen, garbiketa lanetan... 634 278 198

Neska arduratsua erreferentzia eta esperientziarekin eskaintzen da. Pertsona helduak edo umeak zaintzeko edo garbiketetan lan egingo. Interna moduan, orduka edo gauetz. 677 624 965

Neska farmazialaria segituan lanean hasiko nintzake. Pertsona helduak edo umeak zaintzen edo garbiketetan, orduka. 622 217 818

Lokal bat salgai, Nagusia 5ean, 120 metro2. 699 306 158

Neska bat eskaintzen da orduka lan egiteko. Etxeak garbitu edo adineko pertsonak zaintzeko. Tel. 687 348 223.

Geriatría laguntzaile bezala, edo sukaldari bezala (euskal sukal-

dearen ezagutza). 688 654 698.

Ileapaintzaile bat naiz, eta etxetan ilea orrazteko eskaintzen naiz. Aproposa pertsona helduentzat, edo etxetik atera ezin duenarentzat. 612 487 017.

Helduak edo umeak zaintzen edo garbiketa lanak egiten lan egingo nuke. 632 587 450.

Asteburutan, interna bezala lan egingo nuke, pertsona helduak zaintzen. 602 871 835.

Etxeko lanak egiten edo garbiketetan, umeak edo pertsona helduak zaintzen edo sukaldean lan egingo nuke. Tel. 617 166 950.

Neska arduratsua lan bila dabil. Interna moduan eta orduka. Pertsona helduak edo umeak zaintzen edo garbiketa lanetan. Berehala lanean hasteko. 606267824

#### BESTELAKOAK

Gerezi koloreko logela bat salgai. Egoera onean. Ohea, idazmahai, armairua eta apal bat. 400 euro. 600 320 967

Udarregi Ikastolan klase partikularrak emateko jende bila gabilta. Interesa baduzu pasa ikastolatik edo deitu! 943 36 12 16

Errege sagar ekologikoa eta etxeko membrilloa salgai. Interesatuz gero: 656742048 (Miren) edo 656757850 (Arantxa).

Belarra mozteko makina elektrikoa (gutxi erabilia) eta enkortadorea salgai. 943363201

Bi artzai txakurkume Gorbea arrazakoak saltzen dira. Telefono zenbakia: 637 974 994

Italiera klaseak eskaintzen dira. Kontakua: 699 609 058.

#### TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehenetik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean

## Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Amenabar botika (Iehen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta...900 840 111 / 016	
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiardo Kiroldegia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala.....	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Egunekeo Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkartea Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	943 366 340	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaua! Kultur Elkartea.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

## Goardiako farmaziak

**Osteguna 26** URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

**Ostirala 27** GIL Kale Nagusia 24. Lasarte

**Larunbata 28** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

**Igandea 29** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

**Astelehena 30** ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

**Asteartea 01** LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

**Asteazkena 02** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

## Apirilak 26 - Maiatzak 06

**Osteguna 03** ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

**Ostirala 04** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

**Larunbata 05** ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

**Igandea 06** ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

LARUNBATETAN,  
Usurbilgo bi farmaziak ireki-  
ta egongo dira: 9:00-13:30

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**  
ECHEVESTE ELOSEGUI, JORGE  
Elkano 9 Behea, Hernani  
943 55 20 87 22:00 - 09:00

Gainontzeko datak [www.cofgipuzkoa.com](http://www.cofgipuzkoa.com) web orrian ikusgai.



# Agenda apirila

## 26 osteguna

- "Kalean otso etxean uso" antzezlan. 18:00etan, Sutegin.

## 27 ostirala

- Euskal presoen eskubideen aldeko elkarretaratzea. 20:00etan Mikel Laboa plazan.
- Gazte mugimenduaren ekintza 22:00etan Sutegin: "Oreretan etxebizitza sozialaren proiektua".

## 28 larunbata

- Kantu-jira. 12:00etan Mikel Laboa plazan.
- Gazte mugimenduaren ekintza 18:30ean M1 gazte kontzentrazioa. 19:00etan Elebro Papo. 23:00etan kontzertu gaua: Kezka, Zaparra eta Dj Manolo 62.

## Prekarietatearen inguruko ekitaldiak eta kontzertu gaua

**D**uela bi aste Usurbilgo gazte mugimenduak hilabeteotarako aurkezturiko dinamika berriaren baitan, hilabete bakoitzean gai bat hautatu eta haren inguruan jarduerak antolatu asmo dituzte. Apirila prekarietateari eskaintzen ari dira. Aurreko asteburuan luntzarekin batera, besteak beste, prekarietatearen oka jokoa iragarria zuten. Hauek dira astebururako antolatu dituzten ekintzak:

### Apirilak 27, ostirala

22:00 Oreretan etxebizitza sozialaren proiektua Sutegin.

### Apirilak 28, larunbata

18:30 Maiatzaren 1ari begirako gazte



Larunbatean kontzertua Kezka, Zaparra (argazkian) eta Dj Manolo 62rekin.

kontzentra.

19:00 Elebro Papo.

23:00 Kontzertu gaua: Kezka, Zaparra eta Dj Manolo 62.

Antolatzailea: Usurbilgo gazte mugimendua.

## "Kalean otso etxean uso" antzezlan Sutegin

Hiru urtetik gorako haurrei zuzendutako emanaldian txotxongiloak, antzerkia, ilusioa eta irudimena nahastu dituzte. "Antzezlan dinamiko eta dibertigarria, zer hausnartua emango duena", ohartarazi dutenez.

- Patata Tropikala Antzerki Taldea.
- Apirilak 26 osteguna, 18:00etan.
- Sutegin.

## Larunbat honetan, Kantujira

Hilabete azken larunbatean, kantari ateratzen da Usurbilgo Kantu Taldea. Urte hasieratik mantentzen ari diren ohiturari eutsiz, oraingoan ere eguerdian irtengo dira; 12:00etan, Mikel Laboa plazatik.

- Kantujira, Kantu Taldearen eskutik.
- Apirilak 28 larunbata, 12:00etan.
- Mikel Laboa plazatik.

## Datozenak

### Langileen egunari begirako mobilizazioak

Apirilaren 28ko Lan Osasunaren Egunaren eta maiatzaren 1eko Langileen Egunaren harira, bi mobilizazio deitu ditu LAB sindikatuak lan, bizi eta herri duinaren alde. Aipatu sindikatuak aldizkari honetako "Ika-mika" atalera helarazi duen gutunean dituzue xehe-tasunak.

### Hitzorduak:

- Apirilak 27, 11:30 Lan istripuak salatzeko manifestazioa Donostian, Bilbao plazatik abiatuta.
- Maiatzak 1, 12:00 Manifestazioa Hernanin, Gudarien Plazatik abiatuta.
- Deitzailea: LAB sindikatua.

### Maiatzaren lehen igandean, Andatza Eguna

Maiatzeko asteburu pasaren aurretik, ohi bezala, hilabete lehen igandean Andatza Eguna izango dugu. Andatza M.K.T.-tik iragarri dutenez, "Andatzako gailurraren alboko txabolan ospatuko da".



EGUNEKO MENUA KARTA  
PLATER KONBINATUAK  
OGITAR TEKOAK · TOSTAK  
MENU BEREZIAK

**ARTZABAL**  
BASERRIA · JATETXEA

943 36 91 39

www.artzabaljatetxea.eus



BEROKUNTA · GASA · AIRE EGOKITUA ·  
ZORU BERO-EMAILEA  
ITURGINTZA · ENERGIA BERRITAGARRIAK

info@inakiiturgintza.com · www.inakiiturgintza.com

600 024 825



AMA,  
EZ LARRITU TA  
DEITU XABIERRI,  
ETXETRESNAK  
KONPONTZEN DITU  
645 417 665

**EDERTU  
ZAITEZ!**

**new**  
ESTETIKA

**FOTODEPILAZIOAN  
TARIFA FINKOA  
PREZIOAK ZURE ESKURA!  
KONPROMISORIK GABE  
INFORMA ZAITEZ!**



Munalurra 2, Usurbil 943 571 680



**Ane**  
ILEAPAINDEGIA

*Artzabal*



**JUBILATUENTZAT  
AUKERA ONENA**

Artzabal baserria 626 603 600

**UDABERRI BEGIRA  
JARRI ZURE AZALA PREST**



AURPEGI GARBIKETA: 35€  
GORPUTZGARBIKETA: 35€  
PRESOTERAPIA:  
SESIO 1: 20€ 10 SESIO: 125€

- PEDIKURA • MANIKURA,
- BETILEEN TINTAKETA IRAUNKORRA
- MIKROPIGMENTAZIOA
- LASER IODO • DEPILAZIOAK

**INTZA**  
ILEAPAINDEGIA  
ESTETIKA ZENTROA

Eguerditan irekial  
Nagusia 8, Usurbil tel: 943 36 36 41



**Elexpe**  
ileapaindegia

- Betileen tintaketa eta permanentea
- Estetika • Tatuaiak
- Zutikako eta etzandako solarium-a

Muna Lurra 12, Usurbil • 943 370 462

**GOLDWELL**  
**ELUMEN**

9.00etatik 19.00etara zabalik

*ileapaindegia*



**mistoa**

**BIOLOGO BATEK  
MIKROSKOPIOZ  
EGINDAKO BURU-AZAL  
ETA ILEAREN AZTERKETA**

**KONTSULTA DOAN!**

Zubiaurrenea 4, Usurbil • 943 361 951



# Usurbil gozatu!

Ugartondo



Zatoz  
ingurune  
paregabe hau  
ezagutzera!

2 logela  
**219.000 €**

-tik aurrera\*

3 logela  
**260.000 €**

-tik aurrera\*

Garajea eta trastelekua barne



**jaureguizar**

943 579 366

619 508 392

Kale Nagusia, 10 · Usurbil

[www.jaureg.com](http://www.jaureg.com)